

Lanroberrak ekarritakoak

Juan San Martin idazle, euskaltzain eta ikerlari zenaren ondarea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan utzi du familiak, eta Koldo Mitxelena kulturunean jarriko dute herritarren zerbitzura

JUAN LUIS ZABALA – DONOSTIA. «Euskalgintzaren lanroberra» izendatu du Juan San Martin idazle, euskaltzain eta ikerlaria (Eibar, 1922-Hondarribia, 2005) Jose Luis Lizundia euskaltzainak. Lur orotako 4X4 ibilgailuen antzera, aldapa pikoen edo bideetako zuloen beldurrik gabe, arlo askotara jo baitzuen San Martinek lanera, jakin-minak eta kulturaren inguruko kezka biziak gidatuta: poesia, hizkuntzalaritza, mendizaletasuna, etnografia, arkeologia, alpinismoa, euskal kultura, kultura oro har, Lanroberrak Juan San Martinek, Euskal Herriko mila bazterretan ibili eta gero, etxera eramandako materiala 18.000 dokumentu, askotarikoak gaien nahiz euskarrien aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak erosi dio orain Juan San Martin zenaren familiari, 200.000 euroan.

Juan San Martinen ondareak «bizirik» jarrai dezan nahi duelako erabaki du San Martin zenaren familiak ondare hori Gipuzkoako Aldundiaren eskuetara pasatzea, Oier San Martinek, Juan San Martin zenaren semeak, azaldu duenez. Bi baldintza nagusi ezarri zizkion familiak Aldundiari, ondarea saldu baino lehen: batetik, material guztia erabilgarria izatea, ez geratzea inor ezin iritsizko artxibo batean itxita; bestetik, materiala digitalizatzeko, on-line jartzeko eta argitaratzeko eskubide guztiak Aldundiaren esku uztea. «Horri esker, San Martinek bildutako materialak ikerlari gehiagoren lagungarri izaten jarraituko du», Oier San Martinen ustez.

Ondarea herritarren zerbitzura

Azken urteetan, «lan ildo nagusietakoa» du Gipuzkoako Aldundiak, Gonzalez Txabarri ahaldu nagusiak adierazi duenez, «ondarea esku publikoetan hartu eta herritarren zerbitzuan jartzea». Julio Urkixoren funtsen erosketarekin egindako urratsak Francisco Escudero eta Antonio Zabalaren funtsen erosketekin izan zuen jarraipena; Juan Perez Lazarragaren eskuizkribuaren erosketa ere ildo horretan kokatu behar da. Beste funts horien guztien ondoan, San Martinena ere Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean jarriko du herritarren zerbitzura Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aldundiarentzat «pozgarria» da San Martinen ondarea eskuratzea, Gonzalez Txabarrik azaldu duenez. «Familiaren aldetik, izugarrizko konfiantza erakusten du Juan San Martinen ondarea Aldundiaren esku utzi izanak. Eskertuta gaude jarrera horregatik, baina horrek konpromiso batean ere jartzen gaitu, esker onaz gainera kudeaketa lan bat ere eskatzen duelako». «XX. mendearen bigarren erdian euskal kulturaren inguruan kezka handia zuen pertsona batek sortu eta bildutako guztia» jasotzen du San Martinen ondareak, Gonzalez Txabarriren ustez. «Juan San Martinen haritik tiraka, Euskal Herria aurreko mendeetan nolakoa izan den ikus daiteke. Altxor honek gipuzkoarren kultur ondarea asko aberasten du. Kultur artxibo partikularren artean, euskal kulturaren ikuspegitik, aberatsena da.

Francoren agindupeko garai gogorretan lantzen hasitako artxiboa da, eta euskal kulturaren adar asko hartzen ditu». Juan San Martinena «artxibo bizia» da, Gonzalez Txabarriren ustez. «Juan San Martin bizirik dago bere artxiboan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizuna da orain artxibo hori gizarteratzea». Juan San Martinek idatzi eta argitara eman gabeko idazlanik ere bada ondarean, eta orain Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dago material hori, egoki iritziz gero, argitara ematea.

DATUA

18.000: Hori da, guztira, San Martinen ondareak batzen dituen dokumentuen kopurua.

Liburuak: 10.000.

Argazkiak: 5.000 .

Bestelakoak: 3.000.

EDUKIAK

Lekuko zuzen eta kezkatu batek bildutakoak

Ondareko 10.000 liburuen artean, 9.000 inguru dira XX. mendekoak, eta gainerakoak XIX, XVIII eta XVII.ekoak. Interes handiko liburu zaharrak asko dira: Agustin Kardaberazen Jesusen esku liburua-ren 1916ko argitaraldiko ale bat, edo El apóstol de las Indias, nuevas gentes, San Francisco Xavier de la Compañía de Jesús liburua-ren 1698ko argitaraldiko ale bat, adibidez.

Eskuizkribuen arloan, Juan San Martinek berak Otsalar ezizenez plazaratu zituen poema liburuen jatorrizkoak ez ezik, Juan Mari Lekuona, Mikel Lasa, Joxe Azurmendi, Xabier Lete eta beste hainbat idazleren 60ko hamarkadako poema liburuen jatorrizkoak ere badira ondarean. Ondareko 5.000 argazkien arteko gehienak 1959tik 80ko hamarkadara bitartean eginak dira. Artearen eta literaturaren ingurukoekin batera, mendian egindakoak nagusitzen dira, molde askotakoak horiek ere: paisaiak, etnografia edo arkeologia lanetakoak, kirol arlokoak. Argazki bakoitzak bere azalpena du, San Martinek berak idatzia. Audio artxiboak ez dira horren ugariak, baina badute interesik: amari egindako grabazioak, ipuinak, gabon kantak, bertsolarien jaialdiak.